

**KOOPERATIBISMORI BURUZ  
TXOSTENA ETA LAB-en JARRERA  
S.A.L.-aren AURREAN**

**Ordezkarri Nazionala - Euskadi 1985.ko irailaren 19a**



**PONENCIA SOBRE COOPERATIVISMO  
Y POSICION DE LAB  
ANTE LA S.A.L.**

*Batasun Nazionala: 85-10-26*

**DOCUMENTAZIO  
ZENTROA**

**TXT10031**

## INDICE - AURKIBIDEA

COOPERATIVAS	
KOOPERATIBAK .....	3
SOBRE EL COOPERATIVISMO EN GENERAL	
KOOPERATIBISMOAZ, ORO HAR .....	4
-Alternativa cooperativista como vía hacia el Socialismo	
-Kooperatibaren alternatiba Sozialismorako bide .....	4
-De las contradicciones internas	
-Barne kontradikzioak .....	6
-Algunos aspectos positivos	
-Zenbait alderdi on .....	7
LA EXPERIENCIA DE MONDRAGON	
ARRASATEKO ESPERIENTZIA .....	9
-Financiación	
-Finantzaketa .....	9
-Algunos datos sobre C.L.P.	
-Zenbait datu L.A.K.-ari buruz .....	10
-Inversiones	
-Inbertsioak .....	10
-Sectores en el Grupo Cooperativo (CLP)	
-Kooperatiba Taldeko (LAK) sektoreak .....	12
-Frente a la crisis	
-Krisiaren aitzinean .....	13
-Algunos condicionantes de orden político	
-Politika mailako baldintzatzaile batzu .....	14
-Aspectos sociológicos	
-Alderdi sozilogikoak .....	15
DE LA ALTERNATIVA AL MOVIMIENTO COOPERATIVO	
KOOPERATIBA MUGIMENDUARI ALTERNATIBA .....	16
ANTE LA S.A.L.	
SOZIJETATE ANONIMO LABORALAK (S.A.L.) .....	18

# COOPERATIVAS

---

# KOOPERATIBAK

Adquirido en su día el compromiso de realizar un trabajo sobre el cooperativismo que sirviera de base para ir modelando una alternativa organizativa y sindical para el movimiento cooperativista, os presentamos este trabajo que pretende servir de inicio a un debate interno dentro de LAB que nos permita ir consolidando nuestra presencia en el sector.

Pretendemos tratar al sector cooperativista, en primer lugar, desde una perspectiva ideológica global, para pasar en un segundo término a desarrollar aspectos concretos del Grupo Cooperativo de Mondragón, e ir delineando nuestra postura ante la S.A.L.

Sobra decir que el trabajo se presenta a discusión y al mismo se le deben realizar las aportaciones y críticas que se entiendan necesarias.

Kooperatibismoaz lantxo bat burutuko genuelako hitza eman genuen aspaldi, asmoa kooperatiba mugimendurako ere organizazio eta sindikal alternatiba eraikitzen hastea zelarik. Eman genuen hitza betez, hemen duzue lan hau LABen barne eztabaidari hasiera emateko, horrela sektore horretan gure eragina indartzen joan dadin.

Kooperatiba sektorea aztertu nahi dugu, lehenbizi, ikuspegi ideologiko eta global batez, ondoren Arrasateko Kooperatiba Taldearen alderdi konkretuak jorratuz jarraitu eta itxuratzen hasteko SAL-en aitzinean izan beharko genukeen jokabidea.

Lan hau, garbi dugunez, eztabaidarako materiala da. Osatu beharrean dago eta egin behar zaizkion hala eritzen diren kritikak ere.



# SOBRE EL COOPERATIVISMO EN GENERAL

## KOOPERATIBISMOA, ORO HAR

### LA ALTERNATIVA COOPERATIVISTA COMO VIA HACIA EL SOCIALISMO.

En ciertos ambientes se ha presentado la vía cooperativista como una alternativa práctica que apoyándose en la propiedad y autogestión de los medios de producción nos conduce a una transformación pacífica, lenta pero progresiva, del sistema capitalista. En el caso vasco, influenciados por la doctrina social de la Iglesia, se ha querido ver en el cooperativismo una **tercera vía** alternativa al capitalismo y al socialismo.

Esta pretensión incubada en sectores nacionalistas vascos durante la dictadura franquista, se ve favorecida por las condiciones provocadas por un ciclo de acumulación capitalista expansivo (década de los 60) en un marco socio-político y económico atrasado que posibilita proyectos empresariales con cierto futuro. Estas condiciones, coyunturales, permitirían concretar en la práctica los proyectos cooperativos, tomando la alternativa del orden cooperativista imagen real y posible que encandiló a no pocos trabajadores.

A pesar de estas circunstancias favorables, el cooperativismo como alternativa de transformación social no resiste el más mínimo análisis crítico. Anclado en su proyecto de incidir en el área de la economía (principalmente en la producción), abandona el terreno de la lucha política plegándose a un ordenamiento jurídico, político e institucional, concebido para reproducir la acumulación capitalista y apuntalar el sistema.

### KOOPERATIBAREN ALTERNATIBA SOZIALISMORAKO BIDE

Hainbat jendearen artean, kooperatibagintza erakutsia izan da sistema kapitalistaren aldaketa mantso baina etengabera eraman gaitzakeen alternatiba praktikoa bailitzan, horretarako produkziobideen jabetza eta autogestioan oinarrituz. Euskal Herrian, Elizaren dotrina sozialaren eraginez, kooperatibismoa kapitalismoa eta sozialismoaren arteko **hirugarren bide** bezala aurkeztu nahi izan da.

Frankoren diktadurapean euskal sektore nazionalisten baitan bizirik iraun zuen nahikizun horrek indarra hartzen du 60. hamarkadan, orduko pilaketa kapitalista hedakorrak, nolabaiteko etorkizuna izan dezaketen empresa proiektuak posible egiten dituen eremu sozio-politiko atzeratuan, sortzen dituen kondizioengatik. Kondizio hauek, momentukoak izanik ere, aukera eman zuten kooperatiba proiektuak praktikan aurrera ateratzeko, eta kooperatibaren alternatibak ordu hartan bereganatu zuen itxura benetazko eta posibleak hainbat eta hainbat langile itxuturik utzi zuela esan behar.

Nahiz eta gauzak bere alde azaldu egoera hartan, gizartearen aldaketarako alternatiba bezala hartua izatean, kooperatibismoari ezinezkoa izanen zaio analisi kritiko kaxkarrenari aurre egitea. Ekonomi arloan indartze proiektuari lotu zitzaion (produkzio mailan batez ere), eta abandonatu zuen burruka politikoaren arloa, pilaketa kapitalista birproduzitu eta sistema sendotzeko ez bestetarako zegoen ordenamendu juridiko politiko eta institu-

La empresa cooperativista, en su concepción actual, nace y se desarrolla dentro del capitalismo en su fase imperialista. Se encuentra condicionado por el poder político y económico concentrado en los trust multinacionales y depende sobremanera de los créditos bancarios y de la normativa decretada desde la Administración Estatal, interrelacionada esta última de tal forma con el sistema capitalista que la denominación del ciclo de desarrollo social que atravesamos es denominado como "Capitalismo de Estado".

El mercado, la oferta y la demanda, condicionada como decimos por el poder multinacional, es el vínculo de interrelación entre las empresas cooperativas. El sistema de precios monetarios y la ley del valor como reguladora de la producción mercantil, determina y acota el desarrollo económico y la propia supervivencia como proyecto empresarial de las cooperativas. En definitiva, son los criterios de rentabilidad los que priman en todas las vivencias internas y externas del cooperativismo, anulando, incluso reiteradamente, principios progresistas que empujaron al nacimiento del movimiento cooperativista.

De un modo general no exento de excepciones, las cooperativas se desarrollan en sectores de producción marginales, (tener presente que nos referimos al cooperativismo en general, no a la experiencia de Mondragon) mayoritariamente abandonados por la iniciativa empresarial. Es así como las empresas cooperativas, apoyándose en un incremento de la productividad basado en la propia autoexplotación, reduciendo gastos de mano de obra indirecta e impulsando una planificación de la producción, consigue mantener un nivel de actividad ligado al de subsistencia de los "socios", configurándose en última instancia como proyecto incapaz de proporcionar una alternativa global de transformación social y que corre un continuo peligro de ocultar los

zionalaren mendean jarriz.

Entrepresa kooperatibista, egungo kontzepzioaren arauera, sortu eta garatuko da kapitalismoaren baitan, jonen aldi inperialistan. Trust multinazionalengan kontzentraturik dagoen botere politiko eta ekonomikoak kondizionaturik aurkitzen da; lotuegi dago bankuen kredituei eta Estatu Administraritzak erabakitako araudiari, garbi dagoelarik Administraritzari hori guztiz bat dela sistema kapitalistarekin, izan ere bizi dugun garapen sozialaren egungo zikloa deitu ere "Estatu Kapitalismoa" deitzen bait dugu.

Merkatua, eskaintza eta eskaria, esan bezala botere multinazionalak kondizionatuak, izanen dira entrepresa kooperatibisten arteko loturazko harremana. Diru prezioen sistemak eta merkatal produzioaren erregulatzailatzat hartzen den balioaren legeak, zehazten eta mugatzen dute kooperatiben bai garapen ekonomiko bai entrepresa proiektu bezala berezkoa litzaziekeen superbibentzia ere. Hitz batez, errentagarritasun erizpideak gailendurik dakusgu kooperatiben barne eta kanpo funtzionamenduan, hutsean utziz behin eta berriz kooperatiba mugimenduaren sorrera ekarri zuten printzipio aurrerazale haiek.

Oro har, salbuespenak barne, kooperatibak produzio marginala den sektoreetan garatu ohi dira (gogoan izan kooperatibismo osoaz ari garela, eta ez Arrasateko esperientziaz bakarrik), gehienetan entpresariaren ekimenak alde batera utzitako sektoreetan. Honela, langile beraien autoexplotazioan oinarrituriko produziogintzaren hazkundean sostengua izanik, zeharreko eskulanaren gastuak gutxituz eta produzioaren plangintza bulkatuz, kooperatiba entpresak lortu du "sozioen" subsistentziara mugatutako iharduera maila mantentzea. Azkenfinean, aldaketa sozialerako alternatiba globalik eskaini ezin duen proiektu gauzaeza izatea lortu du, klase antagonismoa estaltzeko arriskua etengabe berarekin daramalarik.

antagonismos de clase.

## DE LAS CONTRADICCIONES INTERNAS.

Todas las vivencias internas de los socios cooperativistas vienen determinadas por las contradicciones de un sistema productivo que dice tener un proyecto basado en la autogestión, y se encuentra inmerso dentro de un orden capitalista avanzado, probablemente en su última etapa, aquejado por las contradicciones de su desarrollo como sistema social.

Los socios cooperativistas mantienen la propiedad jurídica de los medios de producción que emplean, pero en la práctica y condicionados por los criterios de rentabilidad que el sistema impone, estos están gestionados por un 5% de técnicos en sus diversas facetas —también condicionados por los mercados—, que dirigen y planifican la producción.

De ahí se produce una contradicción interna entre la minoría de planificadores y gestores reales —técnicos— y los intereses de la mayoría de los trabajadores. Se estabiliza permanentemente la contradicción entre trabajo manual e intelectual —división del trabajo—, supeditándose toda la actividad interna a esta última variable.

La necesidad de ir ampliando la acumulación de capital como único método de mantener un nivel competitivo eficaz, sitúa a la empresa —no a los socios cooperativistas— como eje central y objetivo último de su actividad económica y social. Obligados a ampliar la tasa de inversión, ésta entra en contradicción con las necesidades e intereses objetivos de los socios —salarios—, influye determinantemente en las condiciones de trabajo —ritmos y candencias, seguridad e higiene, disponibilidad, horas extras—, e incluso, condicionan negativamente la democracia formal interna en la Cooperativa, primando totalmente las decisiones de los que saben —técnicos—, sobre la

## BARNE KONTRADIKZIOAK

Kooperatibatako langileek lantegietan egiten duten bizimodua autogestioan oinarrituriko projektua baduela dioen produzio sistema baten kontradikzioek zehazturik dakusagu. Hain zuzen ere, produzio sistema hori osotara murgildurik ageri zaigu ordenamendu kapitalista aitzinatu batean, beronen azten etapan beharbada, sistema sozial bezala duen garapenak sorturiko kontradikzioek zauritua dagoela.

Kooperatibatako langileek berea dute darabiltzaten produkziobideen jabetasun juridikoa. Halabaina, praktikan, sistemak ezartzen dituen errentagarritasunerako erizpideek kondizionaturik, produzioa zuzentzen eta planeatzen duten teknikoek —5%-a besterik ez direnek— gestionatzen dituzte produkziobideak, nahiz eta teknikoen eginkizuna merkatuak ere kondizionatu.

Horixe sortzen da barne kontradikzio berri bat, benetako planeatzaile eta gestiozile izan eta gutxiengoa osatzen duten teknikoan eta langile gehienek interesen artean. Aldagaitz ageri zaigu eskulan eta burulanaren arteko kontradikzioak —lanaren zatiketa—, barne iharduera oro azken aldagai honen mendeko izanik.

Lehiaketa eraginkor bat mantendu nahi badute, beharrezkoa zaie kapitalaren pilaketa hazitzea, eta bide horretatik enpresa bera izanen da —ez sozio kooperatibistak— beren iharduera ekonomiko eta sozialaren ardatz nagusi eta azken helburu. Inbertsio tasa handitu behar izatean, sozioen premia eta interes objektiboekiko (soldatak) kontradikziora iristen dira. Inbertsio tasa dela eta, eragin handia nabari du lan egiteko moduak —erritmo eta karentziak, segurtasun eta higiena, lanerako prestutasuna, ordu estrak—; era berean, kooperatibaren barne demokraziari dagokionez, ez da txarrerako eragina besterik, jakintsuen —teknikoen— erabakiak gailenduko zaizkiolarik

opinión de la mayoría de los trabajadores —inexpertos— manuales.

Todos los aspectos reseñados conducen al trabajador cooperativista a aislarse del entorno social y a vivir las contradicciones de clase desde una óptica desdibujada. Esta pérdida de "conciencia de la clase explotada", provocada por la "máscara artificial" que esconde la explotación capitalista, es uno de los grandes riesgos que subyacen en el "proyecto" cooperativista.

### ALGUNOS ASPECTOS POSITIVOS

Manteniendo presentes los aspectos estructurales planteados en este escrito, en el cooperativismo se advierten algunas posibilidades de participación en el ámbito de la empresa, que no se dan en las convencionales.

Los niveles de información, a través de los órganos (ASAMBLEAS GENERALES, CONSEJOS), establecidos al efecto, son superiores a los previstos en otras empresas. El acceso a los niveles de responsabilidad, aunque limitados, es posible si se cuenta con un grupo de presión efectivo. Este aspecto posibilita el preparar cuadros obreros especializados en la gestión productiva, accediendo a datos interesantes para el conjunto de los trabajadores.

Estas experiencias, si son debidamente enfocadas desde una visión de clase ajena a la que subyace en el régimen cooperativista formal, puede incentivar tendencias positivas, fundamentalmente en el aspecto ideológico:

- Intervención directa en el control económico.
- Incentivación a la participación y toma de decisiones en apartados técnicos.
- Iniciación a la democracia de base.
- Experiencia autogestionaria.

Estas pueden ser experiencias colectivas importantes que han de servir a la hora de presentarnos como auténtica

esku langile gehienek —ez jakinek— duten eritziari.

Aipatu alderdi guztiek kooperatibako langilea bere inguru sozialetik apartatze-  
ra daramate eta, aldi berean, klase kon-  
tradikzioak ikuspegi okerreztara. Es-  
plotazio kapitalista ezkutuz duen  
"maskara artifizial" honek sorrerazitako  
"klase esplotatuaren kontzientzia" gal-  
tzea da kooperatiba "projetuaren" azpi-  
an datzan arriskurik handienetakoa.

### ZENBAIT ALDERDI ON

Idazlan honetan azaldutako egituraz-  
ko alderdiak gogoan izanik ere, kooperati-  
betan igartzen ahal dugu zenbait posibili-  
tate entepresaren barrutian parte har-  
tzeko, ohizko entepresetan ikusi ezin  
ditugunak.

Bestelako entepresetan aukeran ez  
dagoen informazioa eskura liteke horreta-  
rako kooperatibatan diren organuen bidez  
(BATZARRE OROKORRAK, KONTSEILU-  
AK). Nahiz mugaturik, presio talde eragin-  
korrik bada, erresponsabilitate mailatara-  
ko atek zabalik dira. Hau egokia izan  
liteke produzio gestioan espezializaturiko  
langile koadroak izatera iristeko, langile  
guztientzat interesgarriak daitezkeen da-  
tuak eskura bait daitezke.

Esperientzia hauek, behar bezala bi-  
deraturik, agirikoa zaigun kooperatiba  
errejimenaren azpian datzan klase ikus-  
pegi okerra alde batera utzirik, joera  
positiboak piztutuz ahal dituzte, batipat  
alderdi ideologikoan:

- lhardunbide zuzena kontrol ekonomi-  
koan.
- Parte hartzea piztu eta teknika arazo-  
etan erabakitzeke gauza izatea.
- Oinarrizko demokrazian lehen urratsak  
ematea.
- Esperientzia autogestioan.

Hauek esperientzi kolektibo garrantzi-  
tsuak izan litezke eta balio baher digute  
benetako botere alternatiba bezala aur-

alternativa de poder y en procesos de radicalidad combativa que nos conducen a ocupar empresas.

Junto a las ventajas cooperativas reseñadas, podríamos citar algunos aspectos favorables. Por un lado las escalas salariales son más reducidas, a pesar de que afecte solamente a los niveles directivos más altos. Las oportunidades de acceder a puestos de responsabilidad son más amplias que en la S.A. La propia movilidad funcional, obviamente condicionada por los sistemas productivos, cuenta con más posibilidades que en las empresas convencionales.

keztuko garen ordurako, baita enpre-saz nagusitzera eramaneen gaituzten burruka gorriko prozesuetan ere.

Aipatu kooperatiben abantailekin batean, gogoan har ditzakegu beste alderdi batzu ere. Batetik, soldata eskalak murrizagoak dira, nahiz eta zuzendari maila altuenak bakarrik ikutu. Erresponsabilite postuetara iristeko aukerak, S.A.-etan baino ugariagoak. Bere mugikortasun funtzionalak, produkzio sistemek kondizionaturik egonik ere, ohizko enpre-se-tan baino posibilitate gehiago ditu.



# LA EXPERIENCIA DE MONDRAGON

## ARRASATEKO ESPERIENTZIA

Desarrollada entre las contradicciones generales tratadas con anterioridad, la experiencia Cooperativa de Mondragon cuenta con una serie de características específicas que la dotan de una identidad propia.

El nacimiento de ULGOR (madre de todo el movimiento) se da en una fase de relanzamiento de la economía europea, con un mercado interno en franca expansión (Estado Español) al amparo de comercialización de las estufas de petróleo.

Desde sus inicios la actividad empresarial dedica sus esfuerzos a lograr el máximo de independencia tecnológica, cuya expresión más señalada es la creación del primer Centro de Investigación y Desarrollo de Euskadi. Apoyados en la compra de licencias extranjeras y en la investigación, dirijen su actividad hacia sectores punta.

### FINANCIACION

Partiendo de que el grupo cooperativo no tiene acceso (se lo impide la legislación) a la bolsa, las principales fuentes de financiación vienen a través de los socios:

- Derechos de entrada (684.000 ptas.)
- Aportaciones computables, que pueden ser:

- a) Obligatorias.
- b) voluntarias.
- c) Aportaciones de socios excedentes (jubilaciones, etc.)

Otro aspecto importante es la política de autofinanciación, reinvertiendo las demásías en la propia empresa, en vez de emplearlo en el consumo del trabajador.

Aurretik aztertutako kontraesanetan bilakatua, Arrasateko Kooperatiba esperientziak bere nortasuna ematen dioten ezaugarri bereziak ditu.

ULGOR (mugimendu osoaren ama) europar ekonomiaren bultzapen fase batean sortu zen, barne merkatua (Espainol Estatua) zabaltze garbian zegoelarik, petrolioizko berogailuen merkaturatzea zela medio.

Hasieratik eragintza empresarialak bere ahaleginak zuzentzen ditu independetzia teknologikoa ahalik eta handiena lortzera, honen adierazgarri aipagarriena Euskal Herriko lehen ikerkuntz eta Garpent Zentrua sortzea izanik. Kanpoko lizentzien erosketen eta ikerpenaren bitartez eragintza puntako sektoreetara zuzentzen dituzte.

### FINANTZAPENA

Talde Kooperatiboak boltsara heltzerik ez duela kontutan harturik (legeak eragozten dio) finantzapen iturri nagusiak bazkideen kuotatik datoz:

- Sarrera eskubideak (684.000 Pzta.)
- Ekarpen konpuntagarriak, honelakoak izan daitezkeelarik:

- a) Beharrezkoak.
- b) Borondatezkoak.
- c) Bazkide ohien ekarpenak (jubilatzeak, etab. ...)

Autofinantiapena politika beste alderdi garrantzitsua da irabaziak enpresaren berean berrinbertituz, langilearen kontsumoan erabili ordez.

En el apartado de financiación la C.L.P. juega un papel fundamental. Esta es una entidad de crédito, núcleo de las asociaciones del movimiento cooperativista, cuya función es absorber los ahorros populares y canalizarlos a la inversión cooperativa.

### ALGUNOS DATOS SOBRE C.L.P.

Durante 1983, CLP ha alcanzado un volumen de depósitos de clientes de 97.938 millones de ptas., con un incremento respecto a 1982 del 23,5%. Acumula el 5% de los recursos ahorrados en Euskadi.

El valor añadido durante 1983 se estima en algo más de 6.000 millones, con un incremento respecto al año anterior del 30,2%.

Finantzapen alorrean L.K.A.k funtsezko papera jokatu zuen. Hau kredito erakundea da, mugimendu kooperatibistako elkarteen elkarteen guena, bere funtzioa herri aurrezkiak jaso eta kooperatiba inbertsiora bideratzea da.

### L.A.K.ri BURUZKO ZENBAIT DATU.

1983garrenean L.K.A.k, bezeroen sarreteretan 97.938 milioi pezetako kopurura heldu da, 1982.ekin konparatuz igoera %23,5 izanik. Euskal Herriko aurrezkien %5a biltzen du.

1983.ean balore erantsia 6.000 milioi baina zerbait gehiagotan kalkulatzen da, aurreko urtetik igoera %30,2 izanik.

Valor añadido en Caja Laboral Popular				
(en M. Ptas.)				
Concepto	1980	1981	1982	1983
Gastos del personal .....	1.064,9	1.276,4	1.561,8	1.971,2
Amortizaciones .....	203,8	385,2	357,3	344,8
Insolv. y saneamientos .....	90,1	515,5	1.053,5	1.080,0
Otros tributos .....	99,4	138,6	199,9	94,9
Excedente bruto .....	1.394,4	1.250,4	1.511,0	2.605,3
<b>Total .....</b>	<b>2.807,6</b>	<b>3.566,1</b>	<b>4.683,5</b>	<b>6.096,2</b>

### INVERSIONES

Las nuevas inversiones realizadas por C.L.P. durante 1983 suponen 20.726 millones, que se distribuyen en 13.858 millones en tesorería y entidades de crédito, 7.135 millones en inversiones crediticias y 134 millones en cartera de valores. El saldo total de inversiones alcanza 109.453 millones.

### INBERTSIOAK

1983. ean L.K.A.k egindako inbertsio berriak 20.726 milioietakoak dira, honela sailkaturik: 13.858 milioi tesoreria eta kredito erakundeetan, 7.135 inbertsio kreditizioetan eta 134 milioi balore karteran.

Inbertsioetako saldua osotara 109.453 milioi da.

### Inversiones de Caja Laboral Popular

Concepto	M. Ptas.			
	1980	1981	1982	1983
Tesorería y entidades de crédito .....	10.749,3	22.773,2	26.323,3	39.781,0
- Entidades de crédito .....	9.629,9	22.191,6	23.146,2	35.449,2
- Resto de tesorería .....	1.119,5	581,6	3.177,2	4.331,8
Inversiones crediticias .....	30.525,9	36.921,2	45.520,1	52.655,3
- Préstamos y créditos .....	18.581,9	22.508,6	28.339,6	34.584,5
- Efectos .....	11.944,0	14.412,6	17.180,5	18.070,8
Cartera de valores .....	11.022,5	14.553,8	16.882,7	17.016,3
<b>Total .....</b>	<b>52.297,7</b>	<b>74.248,2</b>	<b>88.726,2</b>	<b>109.452,6</b>

La rentabilidad de la tesorería 14,1% es elevada y creciente, al igual que en años anteriores, debido posiblemente en buena parte a que CLP invierte un volumen importante de sus fondos en la partida de entidades de Crédito, cuya rentabilidad es elevada, pero también a que su tesorería pura (no remunerada) es pequeña.

Tesoreriaren errentagarritasuna, %14,1, handia eta hazkorra da, aurreko urteetan bezala, seguraski, neurri handi batetan, L.K.A.k fondo kopuru handia kredito Erakundeak partidan inbertitzen duelako, haren errentagarritasuna handia delarik, baina baita ere bere tesoreria hutsa (remuneratu gabekoa) txikia delako.

### Rentabilidad media de las inversiones de Caja Laboral Popular

(en %)

Rentabilidad	1980	1981	1982	1983
De tesorería .....	11,5	11,4	13,6	14,1
De Inversiones crediticias .....	12,4	12,6	12,7	11,6
De Títulos valores .....	12,3	13,7	14,0	14,6
Del total de inversiones (en ptas. corrientes) .....	12,8	13,3	13,9	12,9
IPC del Estado Español (INE) .....	15,5	14,6	14,4	12,1
Del total de inversiones en términos reales (deflactada) .....	-2,3	-1,1	-0,4	0,7

La rentabilidad de las inversiones crediticias (11,6%) es inferior a la del año anterior e inferior asimismo a la media obtenida en el conjunto de las inversiones.

Es importante subrayar que la inversión crediticia en CLP tiene un contenido diferente al correspondiente al de las entidades financieras convencionales pues mientras en éstas últimas se refiere a financiación dirigida al conjunto de la economía, en el caso de C.L.P. recoge la financiación a socios individuales y a las empresas del grupo cooperativas asociadas a esta entidad. También es notorio que la propia C.L.P. ha rpesionado en diferentes instancias para procurar ampliar su campo de actuación financiadora. Esta modificación, de lograrse, podría acentuar la tendencia a conceptuar la entidad financiera como un fin en sí misma, desvirtuando el carácter de apoyo al grupo cooperativo que en esta fase —preferentemente las cooperativas ligadas al sector industrial— atraviesa por momentos duros.

También es importante reseñar que si la evolución de C.L.P. en cuanto a captación de recursos ha seguido una línea ascendente, no ha sido lo mismo con la generación de puestos de trabajo, estancada desde 1979.

Como se observa, también en el sector cooperativo se da el fenómeno de una ampliación de los márgenes de maniobra de las entidades financieras —en este caso CLP— y un estancamiento en la actividad industrial y en la generación de puestos de trabajo.

## **SECTORES EN EL GRUPO COOPERATIVO (C.L.P.).**

### **A) INDUSTRIA Y CONSTRUCCION.**

**B) SERVICIOS: ENSEÑANZA, SEGURIDAD SOCIAL (LAGUNARO), CENTRO DE INVESTIGACION Y DESARROLLO, DEPORTIVOS.**

Inbertsio kreditizioen errentagarritasuna (%11,6) aurreko urtekoa baino txikiagoa da, eta inbertsioetan ateratzen den erdia baino txikiagoa ere.

Garrantzizkoa da hau azpimarratzea: L.K.A.n inbertsio kreditizioak eradunde finantziatzaile konbentzionaletan dagokion edukin ezberdina dauka; azken haue-tan ekonomia orokorrera zuzendutako finantziapenari dagokio, baina L.K.A.n bazkide indibiduala eta erakunde honekin lotutako kooperatiba taldeko entrepren-dako finantzapena jasotzen du. Aipatzekoa da ere L.K.A.k berak maila ezberdinetan presionatu duela bere eragintza finantziatzaile arloa zabaltzeko. Aldaketa honek, lortzekotan, erakunde finantziatzaile helburu huts gisa hartzeko joera azkartuko luke, talde kooperatiboarentzako laguntza igoera desitxuratuz, talde horrek —batez ere sektore industrialarekin lotutako kooperatibak— une larriak jasaten dituen fase honetan.

Ikusi behar dugu ere L.K.A.ren erre-kurso jasotze joera gorakoa izan bada, ez dela berdin gertatu lanpostu sotzearekin, 1979tik geldituta bait dago. Ikusten denez kooperatiba sektorean ere ematen da fenomeno hau: erakunde finantziatzaileen kasu honetan L.K.A. maniobrarako muga zabalpena eta eragintza industrial eta lanpostu sortzean geraldia.

## **TALDE KOOPERATIBOAN SEKTOREAK (LKA)**

### **A) INDUSTRIA ETA ETXEGINTZA.**

**B) ZERBITZUAK: IRAKASKUNTZA, SE-GURTASUN SOZIALA (LAGUNARO), IKERKUNTZ ETA GARAPEN ZUNTRUA. KIROLEZKOAK.**

Gaur egun 19.000 lanpostu dagokie.

Salmenta kopurua 1983.an 109.000 Milioi izan zen.

En la actualidad son 19.000 los empleos de trabajo asociado.

La cifra de ventas en 1983 fue de 109.000 millones de pesetas.

Como se observa, el grupo cooperativo lo forma una infraestructura acabada (con carencias) que pretende constituirse en un núcleo cerrado autorreproducible, cuyo vínculo de unión con el resto de sectores productivos (incluido el factor mano de obra) es el mercado.

Esta orientación no ha generado nuevas formas de comportamiento social. Desde la pretendida democracia interna, división del trabajo, economicismo, tecnocraticismo, enseñanza subordinada a los procesos de producción, selectividad según criterios de beneficio, incentiva-ción del consumismo, derroche de la publicidad, producción de bienes socialmente innecesarios... se continúa reproduciendo las lacras del sistema capitalista.

## FRENTE A LA CRISIS

Las razones de tipo histórico a las que hemos hecho referencia, el modelo de "autofinanciación" desarrollado en torno a C.L.P., la especialización en sectores punta, la especial atención prestada al desarrollo tecnológico, han permitido asentar y desarrollar una sólida acumulación originaria, consiguiéndose enfrentar la crisis actual desde posiciones más favorables que el resto de la pequeña y mediana empresa.

Aspectos básicos como la reinversión de las demasías generadas en los tiempos buenos en la propia empresa han procurado una solidez importante al grupo. También, y como factor muy importante, la entrega de los trabajadores a la producción y la carencia de derechos mantenidos en otros sectores (Ausencia de derechos sindicales, recuperación de horas perdidas por huelgas políticas o de solidaridad, etc.) han sido factores determinan-

Ikusten denez, talde kooperatiboa azpiegitura burutu batek (hutsuneak baditu ere) eta gune hitxi autobirregingarri gisa finkatzeko asmoz, beste sektore ekoizlee-kiko (langilegoa sarturik) lotura merkatua edukiz.

Orientabide honek ez du portaera sozial berririk sortu. Ustezko barne demokraziatik, lan banaketa, ekonomismoa, teknokratismoa, ekoizpen prozesuetara baldintzatutako irakaskuntza, irabaziaren iritziaz aukerabidea, kontsumismoaren bultzatzea, publizitatearen alferrik gal-tzea, sozial beharrik gabeko gaiak ekoiz-tea... sistema kapitalistaren gaitzak ber-sortzen segitzen da.

## KRISISAREN AURREAN

Arpatu ditugun arrazoi historikoek, L.K.A.ren inguruan bilakatutako "auto-finantzapen" eredua, puntako sektore-etan espezializapena, bilakaera teknolo-gikoari emandako ardua berezia, jatorriz-ko pilatze ekonomiko sendoa finkatu eta bilakatzen lagundu dute, beste entrepre-sa txiki eta erdiak baina baldintza hobee-tan egonik gaurko krisisari aurre egitera-koan.;

Oinharrizko alderdiek, esate baterako, entresan berean berrinbertitzea garai onetan ateratako irabaziak, sendotasun garrantzitsua eman diote taldeari. Baita ere, oso faktore garrantzitsua, langileen ekoizpenerako ardura eta beste sektore-etan gordetutako eskubideen eza (eskubi-de sindikalen eza, elkartasun edo politi-kazko grebengatik galdutako orduen berreskurapena, etab. ...) pisuzko faktoreak izan dira. Lan erritmo azkarrak, ordu extrak egiterakoan ardura osoa, statusa hobetzeko langileen norgehiagoka ibil-tzea, funtzioaz eta tokiaz aldatzeko gertu-tasuna, hauek bihurtzen dute kooperati-bismoa sektore konpetitiboan.

Aldeko gogoramen guztiak izan arren, hainbat entpresa kooperatibotan bazki-de langileei kapital sartze haundiak eska-tu zaizkie. Hain zuzen honelako neurriek,

tes. Los ritmos acentuados de trabajo, disponibilidad total a la hora de meter horas extras, competencia interna entre los trabajadores para mejorar su status, la disponibilidad en cuanto a la movilidad funcional y geográfica, hacen del cooperativismo un sector competitivo.

A pesar de todas las consideraciones favorables realizadas, en diversas empresas cooperativas se han solicitado a los socios trabajadores importantes ampliaciones de capital. Precisamente, este tipo de medidas unidas a la de movilidad de plantillas y las descritas con anterioridad, son las que permiten a las cooperativas prescindir de la adopción de medidas traumáticas —despidos, cierres—. En definitiva, la crisis está realizando mella en las cooperativas, y principalmente se manifiesta en la paralización de expansión del grupo y en el deterioro de las condiciones de trabajo de los socios.

### **ALGUNOS CONDICIONANTES DE ORDEN POLITICO.**

El cooperativismo cuenta con el apoyo —siempre relativo— del PNV y las instituciones autonómicas. La dirección del grupo se identifica con las posiciones "nacionalistas moderadas", encontrándose entre los socios de base muy extendido el sentimiento nacionalista radical. En definitiva, al cooperativismo se le puede situar como al sector productivo más afín a las posiciones nacionalistas.

Son los condicionantes socio-políticos que se dan en Euskadi-Sur —crisis agudizada, enfrentamientos políticos violentos, arraigo social de la identidad nacional vasca— los que constituyen el aval principal de viabilidad del proyecto cooperativista frente a posibles intentos de monopolización de los sectores económicos en que interviene. Por un lado, la competitividad del sector y el empleo de mano de obra ahorra a la administración central importantes gastos, en una situación en la que la tasa de paro es

plantilla mugikortasuna eta aurretik azaldutakoekin batera, ematen diete kooperatibei neurri gogorak —despidoak, hixteak— ez hartzeko ahalmena. Azken finean, krisiak kooperatiberan koska egien arida, eta hau nabarmentzen da batez ere taldearen zabalpen geraldian eta bazkideen lan baldintzen harriaduran.

### **ZENBAIT BALDINTZA POLITIKO**

Nahiz erlatiboa izan, kooperatibismoak kontatzen du instituzio autonomiko eta PNVren laguntzarekin. Nahiz baseko bazkide artean nazio sentimendu radikala oso zabaldua aurkitu, grupo edo taldearen zuzendaritza "nazionalista moderatu" aren jarrerarekin identifikatzen da. Azken-azkenean, kooperatibismoa, produkzio sektore artean, nazionalisten jarrera hurbilenean jartzen dugu. Hego Euskal Herrian ematen diren sozio-politiko baldintzak dira —zori txarreko krisisa, enfrentamentu politiko gogorak, abertzaletasunaren zabaltasuna—, kooperatibismoaren proiektuari ematen dioten berme edo abala printzipalena, parte hartzen duten sektore ekonomikoetan ez monopolizatzeko. Alde batetik, eta une honetan desenpleguaren finantziazioa oso zaila dagoenez eta langabezia gero eta gehiago dagoenez, administrazio zentralak, sektorearen norgehiagokoa eta lanerako esku enplegutzeak, gastu handiak aurrezkitzen ari da. Beste aldetik, Hego-Euskal Herria bizitzen ari den une politiko honetan Administrazio Zentralak ezin du iriki borroka bide berri bat, eta hori beraiek badakite, gertatuko litzatekela kooperatibo sektoreari kompetentzia eragiten badute dekreto bidez. Horregarik ulertzen dugu, nola, eta nahiz Ulgor ez sartu, elektrotresna-txuri gamaren "errekonbertsioan" ez ahaztu kooperatibaren barruan hau oso garrantzitsua dela, subentzionatu dutela eta gainera bere norgehiagoko ahalmenarekin iriki dituen merkatuak errespetatuak izan dira.

ascendente y la financiación del desempleo es agobiante. Por otro, el clima político existente en Euskadi Sur no permite a la Administración Central abrir un nuevo foco de lucha de consecuencias imprevisibles, decretando o estimulando la competencia al sector cooperativo. De ahí podemos entender que, al iniciar la "reconversión" de la gama blanca de electrodomésticos importante actividad cooperativa y a pesar de que Ulgor no entra en estos planes, se haya subvencionado económicamente y respetado los mercados a los que por su capacidad competitiva tiene acceso.

### ASPECTOS SOCIOLOGICOS

Los trabajadores del sector cooperativo —hacemos referencia a los socios de "base"— cuentan con un nivel de conciencia de clase similar al resto de trabajadores de otros sectores, es decir, muy bajo. Esta conciencia básica, tiene tendencia a deformarse por las condiciones específicas en que se desarrolla su trabajo, agudizándose la impresión de que el futuro de la empresa depende del esfuerzo personal de cada uno de los socios. Obviamente, esta impresión se refuerza por la situación de crisis que atraviesa el conjunto de los sectores de producción y la salida diferenciada que se está dando a la misma en el sector cooperativo.

El aumento generalizado del paro y sus repercusiones sociales incentiva la polarización de los trabajadores cooperativistas entorno al proyecto empresarial, desentendiéndose del resto de condicionantes político-sociales. Este efecto de aislamiento antepone una coraza a las presiones, tanto internas como externas, que pretenden transformar la actual realidad del movimiento cooperativo, siendo unos aspectos fundamentales que cualquier proyecto debe mantener presente en todo momento.

### ASPEKTU SOZIOLOGIKOAK

Kooperatiboko sektoreko langileak, —baseko bazkideei buruz ari garaklase kontzientzia, beste sektoreetako langileak bezelatsukoa daukate, hau da, oso bajua. Oinarrizko kontzientzia honek itxuragabe-ko joera du, bere lana bilakatzen den baldintza espezifikogatik, enpresaren etorkizuna bazkide bakoitzaren ahalegi-naren menpean dagoelako idea zorrotzuz. Jakina da, inpresio hau indartzen dela krisisari irtenbide desberdinak ematen dizkiotelakoz, nola kooperatiba sektorean eta nola beste gainerako produkzio sektore-an.

Langabeziaren gehitzea eta bere oihartzun sozialak laguntzen diete kooperatibetako langilei enpresarioren projektura hurbiltzea, beste gainerako baldintza sozio-politikoak ahaztuz. Baztertze honek jartzen dio, nola kanpoko nola barruko presioei, kuraza bat kooperatiba mugimenduaren errealitatea aldatu nahian, izanez hauek edozein projektuak momentu guztietan eduki behar dituen aspektu fundamentalak.

# DE LA ALTERNATIVA AL MOVIMIENTO COOPERATIVO

## KOOPERATIBA MUGIMENDUARI ALTERNATIBA

En contraposición a alternativas de carácter "izquierdista" que impulsan una orientación de enfrentamiento frontal, desde nuestra forma de concebir el proceso de Liberación Nacional abierto en Euskadi orientamos nuestro trabajo sindical desde una perspectiva diferenciada. No es el cooperativismo la principal contradicción de la economía vasca y es en función del análisis realizado, teniendo en cuenta las peculiaridades descritas, desde donde debemos enfocar nuestra actividad militante.

### Líneas de intervención preferente:

a) Como eje central de nuestra actividad en el tema de las cooperativas debemos de intentar acercar al máximo posible la vivencia del cooperativista a la realidad del movimiento obrero. Para ello es necesario la participación y organización del cooperativista en un núcleo común al de los trabajadores del resto de sectores. En definitiva, debemos impulsar la organización de los cooperativistas en el sindicato.

b) La organización sindical de los cooperativistas debe darse en dos niveles:

1º.- Trabajo y desarrollo común con el resto de militantes en la estructura territorial.

2º.- Organización sectorial en el sindicato que permita desarrollar una línea de intervención específica, diferenciada de la actividad sindical en otros sectores, en el marco de la cooperativa.

Agiriko enfrentamendurako joera bulkatzen duten "ezkertiar" kutsuko alternatibekin ez gaude batere konforme. Aldiz, eta gogoan izanik nola ikusten dugun Euskal Herrian Askatasun Nazionalerako bideratu den prozesua, gure lan sindikala zuzentzerakoan ikuspuntu ezberdinetik egiten dugula esan behar dugu. Hau da, gure idurian kooperatibismoa ez da euskal ekonomiaren kontradikzio nagusia. Beraz, egiten dugun analisiaren arauera, eta aipatutako berezitasunak, aintzakoztat hartuz begiratu behar diogu gure iharduera militanteari.

### Lehentasuna duten ihardunbideak:

a) Kooperatiben arloan egin behar dugun lanaren ardatzik nagusia izanen da, hain zuzen, kooperatiban lan egiten duena langile mugimenduaren errealitateari ahalik eta gehien lotzea. Horretarako, premiazkoa gertatuko da kooperatibako langilea beste sektoreetako langileekin batean talde berean partaide izate eta organizatzea. Eta guzti honek esan nahi du kooperatibako langileak sindikatuan organizatzen ahalegindu behar dugula.

b) Eta kooperatibako langileak sindikatuan organizatuko dira bi mailatan:

1º.- Lurralde egiturako gainerako militanteekin lan eta garapen bera izanik.

2º.- Halaber, sindikatuan sektore gisa organizaturik, aukera izan dezaten kooperatibaren munduan ihardunbide berezia lortzeko, beste sektoreetan ema-

c) Esta actividad "sindical específica" que propugnamos, debe de adquirir una forma de "grupo de presión" a nivel nacional que debe orientarse tras los siguientes objetivos:

1º.- Tras una fase de consolidación interna del talde de LAB, debemos de marcarnos el objetivo de acceder a los órganos medios de control de las diferentes cooperativas.

2º.- Estabilizar un canal de acceso a la información de la vida económica y social de las cooperativas, trasvasando la información al conjunto de la estructura militante de LAB.

3º.- Propugnar, según condiciones y relación de fuerzas existentes, una modificación de la normativa de funcionamiento interno proclive a la democratización y a la incentivación de la participación directa de los socios en la administración de la empresa.

4º.- Seguimiento de aquellas arbitrariedades que se vayan —sanciones, discriminaciones...— cometiendo con los socios, estudiando con todo rigor las posibilidades de emplear fórmulas de presión que anulen las mismas.

5º.- Control sobre un correcto repartimiento de las horas anuales trabajadas.

d) Desarrollo de la labor de militancia política que se vaya decidiendo desde los órganos territoriales del sindicato -KAS- participando activamente en la agitación y presión favorable a los intereses del M.L.N.V.

e) Abrir, en la medida de lo posible, un proceso de solidaridad activa con los conflictos que el resto de los trabajadores mantengan abiertos con sus respectivas patronales.

ten den iharduera sindikalaren ezberdina noski.

c) Guk planteatzen dugun iharduera "sindikal berezi" honek lortu behar du nazio mailan "presio talde" baten itxura, ondoko helburuotara bideraturik:

1.- LABeko taldearen barne sendotze aldiaren ondoren, helburutzat hartu behar dugu kooperatiba bakoitzak kontrolerako dituen erdi mailako organoetan sartzea.

2.- Kooperatiben bizi ekonomiko eta sozialaren informazioa eskuratzeko bideak estabilizatu behar ditugu, informazio hori LABeko egitura militante osora pasatuz.

3.- Kooperatiba bakoitzean zer kondiziotan diren eta nolako indar-errelazioa dagoen ikusirik, saiatu behar dugu barne funtzionamendurako araudia eraberritzen, gure joera izanik demokratizatzea eta enpresaren administraritzan sozioek zuzenki parte har dezaten indartzea.

4.- Begiratu etengabe sozioek sufritzen dituzten jokabide gaizto guztiak —zigor, diskriminazio...—, eta aztertu zehaztasunez jokabide gaizto horiek deusezteko erabiltzen ahal diren presio moduak.

5.- Urtean zehar betetako lanorduak modu egokian banatzeko eginbeharreko kontrola.

d) Sindikatuaren lurralde organoetan KAS erabakitako militante lan politikoaren garapena, Askapen Nazionalerako Euskal Mugimenduaren interesen aldeko agitazio eta presionatze ekintzetan aktiboki parte hartuz.

e) Ahal den neurrian, gainerako langileek beren nagusiekin izanen dituzten burrukak direla eta, elkartasun aktiboa izatea lortzeko bideak zabaltzea kooperatibetan.

# ANTE LA S.A.L.

## SOZIETATE ANONIMO LABORALAK (S.A.L.)

Los efectos generales descritos en el caso de las cooperativas, se agudizan en el caso de la SAL.

Empresas auténticamente marginales (las excepciones son contadas) basan su supervivencia en las aportaciones de los trabajadores. El empresario antiguo se libra de la carga de las indemnizaciones aportando el activo de la empresa unida a las deudas generales a los proveedores. Las indemnizaciones de F.G.S. son las únicas percibidas por los nuevos socios que contraen el compromiso de satisfacer las indemnizaciones de los trabajadores que optan por rescindir la vinculación a la empresa, que normalmente, suele ser fuente de discrepancias y enfrentamientos.

Como norma general, la posibilidad de constituirse en SAL se da en empresas pequeñas, endeudadas y sin clientes. Cuando se da en la mediana empresa, a las causas citadas se le une el endeudamiento gigantesco y una expulsión del mercado por el resto de empresas de la competencia, que obliga, en caso de pretender incluirse en la "aventura" de la SAL, a una reducción drástica de la plantilla. En ambos casos, la supervivencia de la empresa está ligada a la autoexplotación y aislamiento de los trabajadores socios.

Estos condicionantes dificultan cualquier posibilidad de realizar un sindicalismo de clase en el marco de la SAL.

Como se ha visto, los argumentos expuestos están ligados a unas condiciones económicas límites que no recojen la

Kooperatiben arloan aipatu ditugun ondorio orokorrak, zorrotzago ematen direla esan behar Sozietate Anonimo Laboralen kasuan.

Benetan marginalak diren empresa hauek (salbuespen bakar batzu ezik) bizi baldin badira, langilearen bizkarretik bizi dira guztiz. Nagusia izandakoa indemnizazio kargatetik libre geratu ohi da trukean entpresaren aktiboa emanaz, baina hornitzaileekin eginiko zorrak ere uzten dituelarik. Entpresako sozioek bereganatuko dituzten indemnizazio bakarrak Fondo de Garantia Salarial-ek emandakoak izanen dira, baina aldi berean beren gain hartuko dute empresa uztea erabakiko duten langileei dagozkien indemnizazioak ordaintzeko konpromezua, maiz horixe izaten delarik elkarren arteko haserre eta burrukarako motibua.

Oro har, erran liteke SAL izatera iristeko aukera dutela gehienbat entpresa kaxkar, zorpean eta bezerorik gabe daudenek. Entpresa ertain bat izanik, berriz, aipatu arrazoiez gainera sekulako zorra izan ohi da, eta leihakide diren beste entpresekin merkatutik kanpora botatzea lortu ohi dute. Egoera horretan, SAL bihurtzearekin batera etorri ohi da langile kopuruaren gutxitu beharra. Nola bata hala bestean, entpresaren etorkizuna sozioak diren langileen autoexplotazio eta aislamenduan oinarritzen da.

Baldintza hauek izugarri zailagotzen dute SAL-en arloan nolanahiko klase-sindikalismoa burutzea.

Ikusi denez, eman ditugun arrazoiek kondizio ekonomikorik makurrenak adie-

posibilidad de enfrentarnos a la situación de montar una SAL o Cooperativa en condiciones favorables. Creemos que al inicio del trabajo se reflejaban las carencias del proyecto cooperativo. Si se llegaba a la conclusión que había que intervenir sindicalmente en ellas, se hacía ante la necesidad de incidir dentro de una realidad vigente y actual, nunca, desde la orientación de impulsar el proyecto empresarial cooperativo. No entra dentro de nuestros proyectos políticos, en la fase actual, el crear empresas. Unicamente, en aquellos casos especiales, donde la reconversión de una empresa en SAL o Cooperativa juegue un papel fundamental en su entorno social y siempre que no provoque un trauma insalvable (despidos, marginación...) entre los trabajadores, LAB intervendrá, nunca impulsará, en la formación de la SAL; esta posibilidad deberá siempre ser cotejada con la suficiente antelación por la Comisión de Acción Reivindicativa como método de una correcta cumplimentación del espíritu marcado en la ponencia.

Por otro lado en las SAL ya establecidas la militancia y afiliación LAB deberán coordinarse internamente (como otra fábrica) para responder a la inercia de autoexplotación (horas extras, ritmos abusivos, abandono de la seguridad...), insolidaridad, pérdida conciencia de clase, aislamiento problemática política... que comporta en sí misma la SAL; para ello, es fundamental no solamente un trabajo de coordinación interna que frene esos vicios innatos a la SAL sino la participación activa en la estructura territorial del sindicato.

razten dituzte, hau da, SAL edo Kooperatiba bat eroso samar antolatu ahal izateko aukerarik ere ematen ez dutenak. Uste dugu, idazlan honen hasieran argi geratu direla kooperatiba projektuaren hutsunak. Eta hauetan sindikal lana aurrera eramatea erabaki baldin bada, egun indarrean eta bizirik dagoen arlo berezi honetan indarra izatea lortu beharrak eraginik izan da, kooperatibaren empresa projektua bultzatzeko inolako joerarik gabe. Gaur egun guk ez dugu enpresak sortzen hasteko projektu politikorik.

Eta horretara jo beharko banegu, arras egoera berezian egon beharko genuke. Entrepresa bat SAL edo kooperatiba bihurtzeko, bere gizarte inguruan ezinbestekoa izan eta konponezinezko traumarik (jendea kaleratzea, marginazioa...) ez litzatekeela sortuko ikusi beharko litzateke. Horrelakoetan LABek, nahiz ez bultzatu, parte hartuko luke SAL-a antolatzean. Jokabide posible hau noski, hagitx zorrotz eta garaiz aztertu beharko luke Erreibindikapen Ekintzarako Batzordeak, informe honetan aditzera eman nahi den jokabidea ongi bete dadin.

Bestalde, martxan dauden SALetan (beste fabriketan bezalaxe) LABeko militante eta afiliatuek barnean koordinaturik behar dute, autoexplotaziorako joera murrari aurka egiteko (ordu estrak, erritmo gogorregiak, segurtasunari uzteak...), eta aurre egiteko halaber elkartasun ezari, kontzientzia galtzeari, arazo politikoak baztertzeari... hori guztia bait dakar SAL-a antolatzeak. Beraz, ezinbestekoa da dudarik gabe barnean koordinaturik aritzeko lana, SAL-ak berezkoak dituen bizio horiek uzteko, horrez gainera sindikatuaren lurralde egituran aktiboki parte hartzea oinarrizkoa dela esan beharrik gabe.



**L** ANGILE  
**A** BERTZALEEN  
**B** ATZORDEAK